



Azpeitiko Udala

**SALBE AUZOA 34 BEHEAN DAGOEN BAIGERA II ZENTRUAREN ERABILERA
BAIGERA ELKARTEARI UZTEA BEHIN BEHINEKO IZAERAZ.**

Azpeitian, 2021eko ekainaren 29an.

Alde batetik, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, AZPEITIKO Udaleko alkate-udalburua, Toki Araubideari buruzko legeriak emandako eskumenak erabiliz, zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan oinarrituta.

Bestetik, **-JOSE FRANCISCO ALTZIBAR SORAZU (15877849Y), BAIGERA ELKARTEAREN** lehendakaria Azpeitian, bere estatutuek emandako eskumenak erabiliz.

“BAIGERA” JUBILATU ETA PENTSIONDUNEN ELKARTEA- Euskal Herriko Elkarteen Erregistroan inskribatua dago, AS/G/05444410/1995 zenbakiarekin.

Elkartearen helbidea Azpeitian honako hau da: Enparan kalea, 6 lehen pisua 20730 Azpeitia (baigera.azpeitia@gmail.com)

ADIERAZTEN DUTE

I. Azpeitiko Udala “Baigera II” izenarekin ezaguna den Salbe auzoa, 34 zenbakian dagoen higiezinaren jabea da; gaur egun, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak kudeatzen du, bere eskumeneko jarduerak egiteko edo zerbitzuak bideratzeko.

Hitzarmen honen xede den ondasun higiezina behar bezala inskribatuta dago Udalaren Ondasun Higiezinaren Inbentarioan, 1.1.00058 zenbakiarekin.

II. Urte asko dira Azpeitiko Udalak adinekoen sektorean ari den herriko-taldearekin - BAIGERA ELKARTEA- lanean ari dela kolektibo honen eskubideak ezagutu, aitortu eta ezinbestekoa den gizarteratzea eta bizi-kalitatea errazten duten neurriak sustatzeko. Helburu honekin udalerrian zenbait zentru sozial daude, eta horien artean dago **Salbe auzoa, 34ko BAIGERA II**.

Gune fisiko honetan Elkarteko kideak beren ideiak eta ekintzak antolatzen dituzte. Aldi berean auzoko adinduen asialdirako taberna-jatetxe moduan ere erabiltzen da, modu honetan kolektikobaren gizarteratzea eta parte-hartzea sustatuz.

2020ko martxotik aurrera SARS-COV-2 eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurri moduan adinduen elkargune eta aisialdirako zentru soziala itxita egon da. Izan ere, zentruaren ardura eta koordinazioa taberna-jatetxea ustiatzen duenaren gain izan ohi da, eta denbora guzti honetan Udalak ezin izan du bi aldiz hasiera eman dion kontraturik formalizatu.

Une honetan kontratazio espediente berri bat tramitatzen ari da Udala taberna-jatetxearen ustiapena egiteko. Bataz beste prozedura honek lau hilabete iraungo du. Baigera Elkarteak egindako proposamena aintzat hartuz, Gizarte Zerbitzuak Sailak prozedura amaitu bitartean zentruaren ardura eta koordinazioa Elkartearen gain uztea.

Proposamen honen baitan dator lagapen akordio hau. Modu berean, Udalak Azpeitiko Kirol Patronatuaren taberna ustiatzen duen titularrarekin kontratu administratiboa bat egin du aisialdi gunea bideratzeko, beti ere auzoko adinduentzat (ez da ostalaritza jarduerarik emango).

Azaldutakoaren arabera, eta jakitun izanik lagapenak onura ekarriko diela udalerri honetako herritarrei, lankidetza-hitzarmen hau sinatzen dute, ondorengo klausula hauen arabera:

HITZARTUTAKOAK

LEHENENGOA.- Helburua

Hitzarmen honen helburua da “Baigera II” izenarekin ezaguna den Salbe auzoa, 34 behean dagoen adinduen zentru sozialaren erabilera Baigera Elkarteari lagatzea, bertan dauden altzari eta tresnekin batera. Zentru sozialak bere gain hartzen ditu lokala eta baita zentroaren kanpoan edozein arrisku ekiditeko, jarriko daitezkeen mahaiaik ere.

Elkarteak astean zazpi egunetan erabili ahal izango du: astelehenatik igandera.

Erabilera-lagapena behin behinekoa eta doakoa izango da, eta ezin da inola ere ulertu eskubide hori inongo alderdiren aldeko eskubide ekonomiko edo errentagarria denik.

Lagapenaren helburua da auzoko adinduentzat zentru sozial bat izatea, bai Baigera Elkartek bere jardura emateko, bai auzoko adinduek aisialdi gune bat izan dezaten, egoera erregularizatu bitartean.

Helburu hori interes sozialekoa da, eta udalerri honetako herritarren onerako da.

BIGARRENA.- Udalaren betebeharrak.

1.- Udalak behin-behineko izaerarekin lagatzen dio Elkarteari zehaztu den lokalaren erabilera, batz bestea lau hilabeterako, beste bi hilabete luzatzeko aukerarekin.

2.- Baigera II zentruaren ardura Elkarteari izango da, eta adinduen eskumenen garapenean Gizarte Zerbitzuak sailak Elkarteari lankidetza estuan lan egingo du.

3.- Udalaren kontura izango dira lokalaren erabilerak sortzen dituen gastu guztiak. Bereziki, elektrizitate, ur, gas, berokuntza, garbiketa eta telefono horniduren ordainketaren ardura hartuko du, eta baita zentruaren aisialdirako koordinazioaren gastuak ere.

HIRUGARRENA.- Elkarteari betebeharrak.

1.- Elkartek lokala funtzionamenduan mantendu beharko du lagapen epealdian.



Azpeitiko Udala

2.- Elkarateak arduraz zaindu beharko ditu erabilera eskusiboko eta erabilera komuneko espazioak eta, oro har, higiezin osoarenak, baita altzariak ere, eta kide edota erabiltzaileek egin ditzaketen kalteen erantzule izango da.

3.- Elkarateak lagatako jarduera baino ezin izango du egin. Ezin izango da, inolaz ere, ostalaritza jarduerarik eman.

4.- Elkarateak txosten-memoria aurkeztu beharko du Gizarte Zerbitzuen Sailean, lortutako emaitzak baloratuta.

LAUGARRENA.-Hitzarmenaren amaiera

Hitzarmena iraungi egingo da lehen klausulan aurreikusitako epea amaitzen bada, alderdietako edozeinek bere gain hartutako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, gutxienez hilabete lehenago idatziz salatu ondoren, edo aldeetako edozeinek hitzarmena betetzea eragozten duten arrazoiak daudela erabakitzen badu.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren Izaera.

Erabilera lagatzeko hitzarmen hau administratiboa da, eta daukan lege izaerari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 9. artikuluan oinarritzen da (SPKL 2017); beraz, ez da zuzenean aplikatuko, nahiz eta lege horren printzipioak aplikatuko diren hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko (2017ko SPKLren 4. art.).

Ondorioz, hitzarmen honen indarraldian sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ebatziko ditu.

Eta hitzarmen honen edukia berretsiz, goiburuan adierazitako tokian eta egunean sinatzen dute.

